

DESAGERTUTAKO
ERRENTERIA



PASCUAL MARÍN / KUTXA FUNDAZIOA FOTOTEKA - FOTO MARÍN FUNTISA

Mikel Zabaleta García

DESAGERTUTAKO ERRETERIA

 efadós®



ERRETERIA
UDALA

DESAGERTUTAKO ERRETERIA

«Desagertutako Euskal Herria» bilduma
Lehen argitalpena: 2025eko azaroa

Testuen ©: Mikel Zabaleta García

Itzulpenaren ©: Julen Zabaleta Perez

Argazkien ©: hainbat egile

Bildumaren ©: Editorial Efadós

Edizioaren ©:

EDITORIAL EFADÓS

Edison Kalea, 3 · A pabiloia
08754 El Papiol (Bartzelona)
Telefonoa: 93 673 12 12
efados@efados.cat
www.efados.cat

ERRETERIAKO UDALA

Herriko Plaza z/g
Telefonoa: 943 449 600 / 010
zu@erreteria.eus
www.erreteria.eus

Jatorrizko ideia eta diseinua:

Editorial Efadós

Lankidetzaz:

Kutxa Fundazioa

**KUTXA
FUNDA
ZIOA**

*Pilirentzat, hainbeste lagundu digulako
eta maite dugulako.*

Azaleko argazkia:

Pascual Marín / Kutxa Fundazioa Fototeka Foto Marín funtsa

Archivos:

Arabako Artxiboa - PhotoAraba (Arabako Foru Albundia)
Canadian Center For Architecture
Diana Inprimategia
Erreterriako Udal Artxiboa (EUA-AME)
Espainiako Liburutegi Nazionala (BNE)
Espainiako Ondasun Kulturalaren Institutua · Fototeka (IPCE)
Gipuzkoako Artxibo Orokorra · Foru Aldundia (AGG-GAO)
Gipuzkoako Foru Aldundia (DFG-GFA)
Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikoa (GPAH)
Ipar-mendebaldeko Erdiko Artxibo Militarra (AIMNOR)
Kataluniako Artxibo Nazionala (ANC)
Kutxa Fundazioa Fototeka
Zentro Txangozalearen Argazki Artxiboa (AFCEC)

ISBN 979-13-87658-42-7

DL B-19435-2025

Lan hau kopiatzeko, banatzeko, publikoki komunikatzeko
edo aldatzeko edozein era soilik egin daiteke jabeek onartzen
badute, legeak aurreikusitako salbuespenak izan ezik. Lan honen
zatiren bat eskaneatu edo fotokopiatu behar baduzu, jo CEDROra
(Centro Español de Derechos Reprográficos) - www.cedro.org.

Aurkibidea

6. or.

ERRETERIA, PLURALA ETA ALDAKORRA

Gainbegirada herriaren historiari eta bere erresistentziarako gaitasunari

12. or.

ERRETERIAKO BI BOKAZIOAK

Itsasokoa eta lurrekoa

66. or.

INDUSTRIA-IRAULTZA, HEDAPENA ETA MODERNITATEA

Manchester txikiaren sorrera eta gorakada

156. or.

INDUSTRIAREN URTE BOTERETSUAK

Erreterria industrializazioaren euskal eredu

178. or.

NEGUA IRITSI ZEN... ETA KRISIA EKARRI ZUEN

Manchester txikiaren desagertzea

184. or.

AURKIBIDE ALFABETIKOA

Sarrera

ERRETERIA, PLURALA ETA ALDAKORRA

Gainbegirada herriaren historiari eta bere erresistentziarako gaitasunari

Erreteria alderdi askoko herria da. "Herria" diot, handia bada ere, ez delako hiria eta ez duelako izan nahi ere. Ez da inoiz izan ez handinahia ez harroputza.

Bere iragana ez da lineala. Historian zehar hainbat Erreteria izan dira. Goieneko garaiak eta beheraldiak ere izan ditu, garapenekoak eta gainbeherakoak. Baina, azken berrehun urteetan behintzat, herri honen ezaugarri nagusietako bat bizipoza eta inkonformismoa izan dira.

1320an fundatu baino lehen, bazen Erreteria bat. Apur bat txantxetan esanda, Gipuzkoako udalerririk

zaharretakoa da, udalerraren barruan Aitzbitarteko kobazuloak baitaude, Euskal Herriko historiaurreko aztarnategi zaharretako bat.

Herria Orereta zen lekuan fundatu zen, Oiartzungo haraneko lekuetako bat Erdi Aroan, eta Alfontso XI.a erregeak "Villanueva de Oiarso" izena eman zion. Izenean antzeman daiteke haran osoa kontrolatu nahi zutela. Villanueva berria hirigune burgesa izango zen. Bertan, botere berriak finkatuko ziren, harana kontrolatzeko.

Baina Oiartzun kontrolatzen zuten botere feudal zaharrek aurka egin zuten, noski, eta auzien eta beste metodoen bidez independente mantentzea lortu zuten, eta gainera, lurralde gehiena lortu zuten.

Orduan Villanueva itsasora begiratzen hasi zen. Pasaiako portu naturaleko hasieran kokatuta, hura kontrolatzea izango zen garapenerako gakoa.

Horrela, kanpoko edo barruko interesen eraginez, xv.mendean "La Rentería" izena hartu zuen, bertako alondegian kobratzen baitziren portuko errentak. Artikulua kendu eta "Rentería" izan zuen izen ofizial mendeetan zehar, duela gutxi, Euskaltzaindiaren arauetara doitzearren, gaur egungo "Erreteria" ezarri zen arte. Baliteke izenak aldatzea, baina herriak; aldakorra bada ere, ezer ez baita aldagaitza, bere horretan jarraitzen du.

xvi. mendea garai ona izan zen. Itsasontzien eraikuntza eta itsas merkataritza zituen jarduera



MONTSERRAT VIDAL BARRAQUER / ANC

nagusi. Merkataritza Ingalaterrarantz orientatu zen, Bristoleko porturantz zehazki. Hain garrantzitsua izan zen, non kolonia ingeles txiki bat sortu zen herrian. Bertako kide batzuk herriko gizartean integratu ziren eta udal-karguak izatera iritsi ziren. Errenteria beti izan baita erakargarria atzerritarrentzat.

xvi. mendearen amaieran amaitu zen eredu hau, eta xvii. eta xviii. mendeetako gainbehera areagotu zuen. Pasaiaiko Portua lohiz betetzeak eta zainketa faltak garrantzi oso handia izan zuen. Nabigazioa zaildu egin zen eta itsasoa Zumarditik aldendu zen. Itsasontzien eraikuntza eta merkataritza erabat kalteuak izan ziren. Frantziaren aurkako gerrek ere ez zuten lagundu, Errenteria tropa frantziarrek birritan suntsitu eta erre baitzuten: 1512an eta 1638an. Bigarrenean, biztanleek gorago berreraikitzea pentsatu zuten, Basanoagan.

1793 eta 1815 arteko garaia izan zen gainbeheraren unerik okerrena. Gutxi balitz bezala, Errenteria Espainiako Erresumak Frantziako iraultzaileen eta Napoleonen aurka izan zituen gorabeheren tartean egon zen.

Ordurako, Errenteria, beste herri asko bezala, ahituta zegoen. Udaleko diru-kutxa hutsik zuen eta udalak lur komunalak saldu behar izan zituen. Soroak luberritu ziren, basoak bota ziren eta baserri gehienak eraiki ziren.

Berehala iritsi zen gerra berriro. Errenteria gehienbat karlista zen, baina gutxiengo liberala garrantzitsua eta ekintzailea zen; eta Pasaiaiko, eta batez ere, Donostia-ko biztanleen babesa zuen.

1845ean industria-iraultza iritsi zen, eta harekin, Errenteriaren eraldatze eta berpizkunde handia. Fabrika garrantzitsuak sortu ziren, ehungintza ingelesaren eredu industrialean oinarrituta. Langileak behar zituzten



PACO MARI / KUTXA FUNDAZIOA FOTOTEKA - FOTO MARI FUNTSA

DANTZA SOLTEA FERIAL PLAZAN

Erreteriak iragana mantentzen du baina orainaz gozatzen du. Musika eta dantza sutsuki bizitzen dira. Ugariak dira era guztietako festa ikuskizun eta lehiaketa artistikoak. Gaur egun nabarmenak dira Musikaste eta Atlantikaldia. Aurreko orrialdean, dantza solteko txapelketa 1951n.

AITZETAKO TXABOLA

Erreteriarako udal-barrutiak behe paleolitikotik izan ditu biztanleak. Aitzibarteko kobazuloak ditu garai hartako aztarnategi nagusi. Hirigunetik askoz gertuago Aitzetako Txabolako trikuharria ikus dezakegu, Txoritokieta mendian, 1962ko argazki honetan ikusgai.



JESUS ELOSEGUI IRAZUSTA / ARANZADI ZIENTZIA EL KARTEA - JESUS ELOSEGUI BILDUMA

eta Erreteria hazten eta aldatzen hasi zen, hedaduran eta biztanlerian, zerbitzuetan eta ohituretan. Hamarkada gutxitan ezagutezina zen. Nabarmendu ditugun argazki zaharretan ikus daitekeen herrirka goibela denbora gutxian aldatu zen. Iritsi ziren latsarriak, zerbitzu sozialak, estolderia, argi elektrikoa... Kale berriak egin ziren eta tranbiak eta trenbideak munduarekin konektatu zuten. Baina iritsi ziren ere pilaketa, langileeko esplotazioa, kontrolik gabeko kutsadura... Dickensen eleberri bat zirudien.

Eredu hau xx. mendean dibertsifikatu zen. Hazten jarraitu zuen, eta urrutiagoko probintzietako langileak erakarri zituen. xx. mendearen hasierako Erreteria hori da liburu honetan bildu duguna batez ere. Desagertutako Erreteria une hartakoa da. Langileez eta enpresez betetako Manchester txikia; gizarte-bizitza

garrantzitsuarekin eta, neurri batean, bizitza kulturalarekin.

Erreteria hura, uholdeak bezalako hondamendi naturalek edo 1936koa bezalako gerrek kaltetua; denbora gutxian kolapsatu zen, xx. mendearen 70eko hamarkadan. Bere eredu ekonomiko eta soziala berriro hondatu eta desagertu egin zen; eta orduan, xix. mendean bezala, bide berriak aurkitu behar izan zituen. Eta horretan ari da.

Urteak beherakada demografikoarekin igaro ondoren, Donostiako aldiri bihurtzear egon zen. Baina, xxi. mendearen laurdena pasatu ondoren, Erreteria berri bat osatzen ari da. Dagoeneko eraldatu du beste lekuetako jendearen iritsierak. Bere etorkizuna ez badugu ezagutzen ere, espero dugu gorde dezan bere funts gozatzaila, ekintzaila eta inkonformista; bere arima errebeldea.



EGILEZEZAGUNA / KUTXA FUNDAZIOA FOTOTEKA - RAFAEL MUNOZA BILDUMA

ERRETERIAKO BI BOKAZIOAK

Itsasokoa eta lurrekoa

Errenteriatik ez da itsasoa ikusten. Baina usaindu eta sentitzen da. Garai batean, itsasgora Zumardiraino iristen zen, harresiaren oinarriraino. Ibaiaren beste aldeko erriberetan ontziolak sortu ziren, Ingalaterrara eta Bristolera iristen ziren ontziak eraikitzen zituztenak, hiri horrekin merkataritza-harreman garrantzitsua sortu baitzen. Baina Pasaiaiko Portua lohiz betetzen joan zen eta itsasoa urrundu egin zen, XIX. mendean dragatu eta bere hedaduraren parte berreskuratu zen arte.

Hiribildua portua kontrolatzeko sortu zen, baina bizilagun boteretsu batengandik gertuegi zegoen. Donostiak gauza bera nahi zuen eta ezin zuen onartu lehiakide bat hain gertu agertzea.

Errenteria, gainera, Oiartzun haranaren zatiketa gisa sortu zen. Hiribildu bat sortzen zenean, gehienetan inguruan zuen lurraldea kontrolatzeko egiten zen. Baina Oiartzunek kontrol hori ekiditea lortu zuen eta bere lurraldearen gehiena gorde zuen.

Ezin izan zuenez bokazio hauetako bat ere ez garatu, XIX. mendeko industria-iraultza arte ez zen alde zaharretik haratago hazi. Orduan bihurtu zen Manchester txikia.



PASCUAL MARÍN / KUTXA FUNDAZIOA FOTOTEKA - FOTO MARÍN FUNTSA

HERRIKO ENPARANTZA

1940ko plazaren irudi ezohikoa, hutsik baitago. Herriko aginteen egoitzekin: eskuinaldean udaletxea, aginte zibila; ezker aldean Andre Mariaren Jasokundearen eliza, aginte erlijiosoa. Dena ospatzeko erdigunea da. Garrantzitsua den guztia- ren lekuko zen eta da.

EUSKAL OLERKIGINTZAREN JAIA

Plaza bera hamar urte lehenago, 1930ean. Ekainean, Euskal Olerkigintzaren Egunean, euskaltzaletasuna goraiatu zen Primo de Riveraren erorialdia eta hilabete gutxira. Milaka pertsonak parte hartu zuten euskararen eta euskal kulturaren aldeko jaia eta aldarrikapena izan zen hartan.



PASCUAL MARÍN / KUTXA FUNDAZIOA FOTOTEKA - FOTO MARÍN FUNTSA